LEIRE UGIN SORALUCE (1, guztira 1)
Idazkari-kontuhartzailea
Sinaduraren data: 18/03/2025
HASH: b057e46ac747ef54a8f332a2b0ec0a41

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEAREN HAINBAT ASEGURU PRIBATUREN ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO

3. lotea (Ingurumen Erantzukizun Zibila, Epeleko hondakin ez-arriskutsuen zabortegian izandako kalteengatik)

A) INGURUMEN ERANTZUKIZUNA

1.- DEFINIZIOAK

A.- ASEGURUAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONAK

- **Aseguratzailea:** Kontratuan hitzartutako arriskua estaltzen duen pertsona juridikoa.

- **Aseguru-hartzailea:** Aseguratzailearekin batera kontratu hau sinatzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa, kontratu honetatik eratorritako betebeharrak betetzen dituena, daukaten izaeragatik aseguratuak bete behar dituenak izan ezik. Poliza honetan, Mankomunitatea hartuko da aseguru-hartzailetzat.

- **Aseguratua:**

    - **Aseguratu nagusia:** Aseguruaren xede den interesaren titularra den pertsona fisikoa edo juridikoa, eta aseguru-hartzailerik ezean, kontratutik eratorritako betebeharrak bere gain hartzen dituena. Poliza honetan, Mankomunitatea hartuko da aseguru nagusitzat.

    - **Aseguratutako beste pertsona batzuk:** Kontratuaren mugen eta baldintzen barruan, aseguratu izaera ere izango dute honako hauek, aseguratutako jardueraren esparruan jarduten dutenean:

        a) Mankomunitatearen zuzendaritzaz, kudeaketaz eta kontrolaz arduratzen diren legezko ordezkariak eta pertsonak.
        b) Mankomunitatearen mendeko langileak, soldatapekoak izan edo aseguratutako jardueran praktiketako lanak egiten ari direnak, bai eta aseguratuarentzat bakarrik lan egiten duten autonomo azpikontratistak ere.

- **Eskumena duen agintaritza:** Ingurumen kalteak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko neurriak eskatzeko eskumena duen Administrazioko Organoa, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 31

B.- KONTRATUAREN ELEMENTUAK

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 31

- **Aseguru urtea:** Ondore dataren eta urteko lehen mugaegunaren artean, edo urteko bi mugaegunen artean, edo urteko azken mugaegunaren eta aseguru kontratuaren iraungipen dataren edo suntsiarazpen dataren artean batez besteko aldia, hargatik eragotzi gabe Administrazio Klausula Berezien Pleguko 3. klausulan ezarritakoa.

- **Aseguru aldia:** Kontratuaren ondore dataren eta kontratua deuseztatzen, suntsiarazten edo iraungitzen den egunaren artean igarotzen den denbora. Aseguru aldia epe bakar baterako ezar daiteke, edo aseguru urte bat edo gehiago luza daiteke.

- **Aseguratutako kopurua:** Kontratuan adierazitako zenbateko aseguratua da aseguratzaileak aseguratutako ezbeharren ondorioz prestazio guztiengatik ordaindu beharreko indemnizazio, interes eta gastu guztiengatik ordainduko duen gehieneko muga eta muga bakarra.

- **Ezbeharragatik aseguratutako kopurua:** Ezbehar bakoitzeko erabilgarri dagoena da, baldin eta ez badago agortuta aseguru aldi edo urte bereko beste ezbehar batzuengatik.

- **Aseguru aldi edo urte bakoitzeko aseguratutako kopurua:** Aseguruaren aldian kontratu honek babestutako ezbehar guztien indemnizazio, kostu, interes eta gastuen baturagatik aseguratzailea ordaintzeko prest dagoen gehieneko kopurua, baldin eta epe bakarrerako kontratatzen bada, edo aseguru urte berean luzatzen bada, dagokionaren arabera.

  Aseguratutako kopurua, erabil daitekeena, beraz, murriztu egingo da aseguru urte berean edo aldi bakar batean izandako ezbehar bakoitzeko.

  Urtero berritzen diren aseguruetan, ezbehar bakoitza aseguru urte bakarrari egotziko zaio, baita bere garapen prozesua edo ondorioak hainbat urtean luzatzen badira ere.

- **Frankizia:** Berariaz itundutako zenbatekoa, ehunekoa edo denbora tartea, ezbehar bakoitzean aseguratuaren kargura dagoena eta, ondorioz, horren zenbatekotik kenduko dena, behin kuantifikatuta, izan indemnizazio gisa, izan gastuen ordain gisa.

- **Prima:** Aseguruaren prezioa.

- **Ezbeharra:** Aseguruaren xede diren bermeak martxan jartzen dituen gertaera oro, aseguratuarentzako erantzukizunak ekar ditzakeelako, baldin eta kontratuaren estalduren barruan badaude.

  Ezbehar bakar bati dagozkiola ulertuko da.
  - Gertaera bakar, errepikatu edo etengabe batetik, zuzenean edo zeharka, eratortzen diren kalteengatiko erreklamazioen multzoa.
  - Arrazoi bera edo berdina duten gertaera guztiengatiko erreklamazioen multzoa.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 31

- **Erreklamazioa:** Gertaera hauetako edozein:

    - Ezbehar baten ondorioz aseguratuaren aurka prozesu judizial edo administratibo bat edo beste errekerimendu formal eta idatzi bat hastea,

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 31

errekerimendu horrek oinarria izan zein ez, eta betiere, horren ondorioak, halakorik izanez gero, aseguruaren bermeek estaltzen badituzte, zati batean behintzat.

- Aseguratuak aseguratzaileari adieraztea ezbehar bat izan dela.

C.- ASEGURATUTAKO ARRISKUAREKIN LOTUTAKO DEFINIZIOAK

- **Aseguratutako jarduera:** Bergarako Epeleko hondakin ez-arriskutsuen zabortegian egindako jarduera.

Garraio jarduerak; tartean, aseguratutako jarduera gauzatzeko garraiatzen diren gai edo substantzien kargaren hasieratik deskargaren amaierara bitarteko eragiketa guztiak, lurreko garraiobideetan garraiatzea barne.

- **Jarduera osagarriak:** Gainera, aseguratutako jarduerak izango dira jarduera osagarri guztiak, nahiz eta zabortegian egin ez, baldin eta ez badakartzate hauek:
  - Hondakin ez-arriskutsuen zabortegi jardueran esku hartzen duten substantziez bestelako substantziak manipulatzeko, garraiatzeko edo biltegiratzeko prozesuak.
  - Jarduera nagusian aitortutakoari gehitutako fakturazioa.
  - Zabortegikoak ez diren lokalen okupazio jarraitua.

- **Aseguratutako zentroa:** Zabortegian dauden lurzoruak eta ondasun higigarri eta higiezinek osatutako multzoa da, aseguratutako jarduera gauzatzeko erabiltzen dena.

- **Aseguratutako zentroaren lurzorua:** Zabortegiari dagokion lursailaren mugen proiekzio bertikalaren barruan dagoen lurzorua da.

- **Aseguratutako jarduera gauzatzeko erabiltzen diren kanpoko zentroak:** Aseguratuarenak ez diren eta aseguratutako jarduera gauzatzeko erabiltzen diren establezimenduetako edo titulartasun publiko edo pribatuko beste leku batzuetako lurzoruak, ondasun higigarri eta higiezinek eta hondakinek osatzen duten multzoa da.

- **Lurpean edo sartuta dauden instalazioak edo instalazioen zatiak:** Zabortegian dauden gordailuak, eroanbideak, kutxatilak, makinak edo bestelako elementu edo elementu zati batzuk; zentzuetan, substantzia baten elementu edukitzailearen kanpoko azalerara nahiz elementu edukitzaile horren barrualdera iristeko, beharrezkoa den lurpetik ateratzeko, zoladurak, hormak edo beste material batzuk kentzeko edo piezak desmuntatzeko edo kentzeko lanak egitea, erremintak edo makinak erabiliz; eta eragiketa horiek gauzatu gabe, ezinezkoa izango da kanpoko azaleraren zein barnealdearen behaketa egitea.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 31

- **Ingurumen kaltea eta ingurumen kaltearen berehalako mehatxua:** Bi kontzeptuak, Ingurumen Erantzukizunaren Legean eta bat datozen arauetan definituta dauden bezala.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 31

Poliza honen estaldurarako, adierazgarritzat jotzen dira baliabide naturalen ondorio kaltegarri guztiak, baldin eta Administrazioak horiek prebenitzea, saihestea eta konpontzea eskatzen badu, ingurumen araudiarekin bat etorrita, eta horretarako ezinbestekoa bada aseguru kontratu honetan xedatutako frankizia gaindituko duen kostua daukaten ekintzak gauzatzea.

- **Ingurumen erantzukizuna:** Ingurumen Erantzukizunari buruz indarrean dagoen araudian eta beste araudi batean zehazten eta arautzen dena, izaera bereko prebentzio, saiheste edo konponketa betebeharrak dituen heinean.

2.- ASEGURUAREN XEDEA

Ezbeharren bat gertatuz gero, aseguru kontratu honek Mankomunitatea estaliko du, bertan ezarritako mugen barruan, ingurumen erantzukizunari dagokionez, baldin eta ezbeharra zuzenean aseguratutako jarduerari egotz badakioke eta ustekabean eta ausaz gertatzen bada; hau da, ezohikoa bada eta nahita sortu ez bada, ez eta aseguratutako jardueraren zerbitzura dauden instalazioen edo ekipoen jabetzaren edo aurreikusitako eta adostutako gertaera baten ondorio normal gisa ere.

3.- PRESTAZIOAK

a) Ingurumen kaltearen berehalako mehatxua prebenitzeko kostuak

Aseguratuari dagozkion ezohiko eta ustekabeko gastuak itzultzea, ingurumen kaltearen berehalako mehatxu bat prebenitzeko, betiere ez badira desegokiak, neurriz kanpokoak edo aseguratutako erantzukizunetik kanpokoak, eta arrisku edo arrisku egoerek ez badakarte aseguru honek estaltzen duen kalte baten berehalako mehatxua.

Prestazio honen gehieneko zenbatekoa kontratuan zehaztutako kopurura dago mugatua.

b) Ingurumen kaltea gutxitzeko eta ingurumen kalte berriak saihesteko kostuak

Hasita dagoen ingurumen kalte bat geldiarazi, gutxitu edo mugatzeko aseguratuak egin edo itzuli behar dituen gastuak ordaintzea, baldin eta kontratu honek aseguratutako kalte edo erantzukizun gehigarriak sor baditzake, betiere gastu horiek desegokiak edo neurrigabeak ez badira gutxitu edo saihestu nahi den kalteari dagokionez.

c) Ingurumen kalteak konpontzeko kostuak

a. Basa espezieei eta habitat babestuei eragindako kalteetarako, urei eragindako kalteetarako eta itsasertzaren eta itsasadarrei eragindako kalteetarako, honako hauek bermatzen dira:

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 31

i. Lehen mailako konponketa neurrien kostua, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria den neurriraino eta prozeduraren bidez, kostua-onura

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 31

erlazioan, eta, gehienez ere, oinarrizko egoerara itzuli arte, terminoaren legezko adieraren arabera.

ii. Beharrezkoak diren konponketa neurri osagarrien eta konpentsazio neurrien kostua, Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legearen II. eranskinean ezarritakoaren arabera, betiere neurri horien irismena baremo edo prozedura onartu baten arabera finkatu bada, eta baremo edo prozedura hori kalkulatzea edo balioestea ahalbidetzen badu.

Inola ere ez da bermatuko konpentsaziorik edo ordainik kultura, historia edo paisaia balioak galtzeagatik, ez eta konponketaren kostua ez den beste edozein galeragatik ere.

b. Lurzoruari eragindako kalteetarako, deskontaminazio kostuak ordainduko direla bermatzen da, hau da:

i. Garbitzeko, zaharberritzeko edo erretiratzeko eta ordezkatzeko beharrezkoak direnak, kostua-eraginkortasuna erlazioari dagokionez metodorik egokienaren bidez, bi helburu hauetako kosturik txikiena bete arte:

1. Dagoen kutsadura murriztea, oinarrizko egoerara itzuli arte, ingurumen erantzukizunari buruzko araudian terminoak adierazten duenaren arabera.
2. Dagoen kutsadura murriztea, harik eta giza osasunean edo aurreko paragrafoetan aipatutako natura baliabideetan ondorio kaltegarriak izateko arrisku esanguratsurik sortzen ez den arte, estali beharreko kaltea gertatzen zen unean lurzoruak zuen erabileraren arabera.

ii. Kutsatutako lurzorua lekualdatu, gordailutu edo azken tratamendua emateko kostuak, tokian bertan deskontaminatzeko tratamenduari dagozkion gastuak barne, bai eta ondoren birjartzekoak, edo isurtzekoak, beharrezkoa bada aurretik tratamendua aplikatuta, eta beste garbi batekin ordezkatzeko gastuak ere. Ez dira bermatuko honako hauetarako ordaindu beharreko kostuak:

1. Zaborrak eta bestelako hondakinak, lokatza eta arrastatutako objektuak, kutsatzen ez dutenak, mugitzea, lekualdatzea eta gordailutzea.
2. Urez beteta edo itxita dauden hodiak, ubideak edo putzuak garbitzea edo funtzionalki berreskuratzea.

iii. Lurzoruaren deskontaminazio bermatua gauzatzeko kendu edo eraitsi behar diren beste ondasun batzuk mugiaraztea, lekualdatzea eta gordailutzea, baina ez kutsadurak eraginda eraitsi edo kendu behar direnak edo beste helbururen batekin eraitsi edo kentzen direnak.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 31

iv. Lurzorua deskontaminatzeko lanak egiteko erabat edo zati batean mugiarazi edo suntsitu behar diren ondasunak lehengoratzeko edo konpontzeko gastuak, salbu eta lurzorua deskontaminatzeko ez, baizik

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 31

eta beste ezbehar bat saihesteko edo kutsadura eragin duten akatsak saihesteko mugiarazi edo suntsitu behar direnak.

Bermatutako eragiketen kostuaren indemnizaziorako, egin daitezkeen hobekuntzei dagokien zatia kenduko zaio kostu osoari, bai eta eraitsi aurreko unean eraitsitako elementuak hondatu edo higatuko diren ehunekoaren aurreikuspena ere.

v. Produktu infiltratuak berreskuratzea: lurzorua deskontaminatzeko beharrezkoa eta ekonomikoki bideragarria denean bakarrik estaliko da; berreskuratutako produktuak aprobetxagarriak badira, aseguruak bermatutako deskontaminazio kostuen zenbatekotik kenduko da haien balioa.

iii, iv eta v ataletan deskribatutako prestazioak aseguru honek bermatuko ditu, baldin eta kalte aseguru batek ezin baditu bermatu, aseguru hori kontratatu den edo ez kontuan hartu gabe.

Aseguru honek ez ditu aseguratzen instalazioak, partzialki edo osorik, aldi baterako edo behin betiko, ixtearen ondoriozko gastuak, kostuak, galerak edo bestelako ondorio ekonomikoak, ez eta jarduerak etetearen ondoriozkoak ere.

d) Defentsa gastuak

Kontratu honetan sartzen da aseguratuaren defentsa, edozein prozedura judizialetan, erantzule gisa, kontratu honek estalitako ezbehar batean, bai eta prozedura horrek aseguratuari dakarzkion mota guztietako ordainsariak eta gastuak ere. Bermean sartzen dira gainerako gastu judizial guztiak, baldin eta, zehapen pertsonala izan gabe, edozein prozeduraren ondorioz sortzen badira.

Prestazio hori bermatuta geratzen da, bai aseguratutako erantzukizunak administrazio prozedura batean edo prozedura kriminal batean eskatzen badira, bai prozedura aseguratu nagusiaren aurka egiten bada, bai aseguratutako beste pertsona batzuen kontzeptuan sartutako gizabanakoen aurka egiten bada.

Prestazio honen gehieneko zenbatekoa kontratuan zehaztutako kopurura dago mugatua.

e) Fidantzak ematea

Kontratu honek estalitako erantzukizunak bermatzeko aseguratuari eskatzen zaizkion fidantzak eratzea, bai eta behin-behineko askatasuna bermatzeko eskatzen direnak ere, baldin eta aseguratutako erantzukizunak prozesu kriminal batean erabakitzen badira.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 31

f) Gainerako gastu justifikatuak

Ezbeharraren ondoriozko gastu administratiboak, juridikoak eta aseguratuaren kargurako azterketa, plangintza eta exekuziokoak, legean aurreikusitakoak.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 31

Nolanahi ere, ez dira itzulgarriak, eta ordaindu beharreko zenbatekotik kenduko dira honako hauetarako edo honako hauekin lotuta egindako gastuak:

- Estali beharreko ingurumen kaltetzat hartzen ez diren instalazioetan edo beste ondasun batzuetan eragindako kalteak edo narriadurak konpontzea edo leheneratzea, edo edozein hobekuntza mota gehitzea.

- Estali beharreko ingurumen kaltetzat hartzen ez diren instalazioei edo beste ondasun batzuei kalterik ez eragitea edo kalte horri aurrea hartzea.

- Kontratuaren prestazioetan adierazitakoak ez diren beste helburu batzuk, nahiz eta estali beharreko ingurumen kalte bat gertatzearen ondoriozkoak izan.

4.- ZABORTEGIKO LURZORUA DESKONTAMINATZEKO KOSTUEN PRESTAZIOAREN BERARIAZKO BALDINTZAK, MUGAK ETA HEDADURA

Aurreko klausulan deskribatutako lurzoruaren deskontaminazio kostuak bermatuko dira, baita aseguratutako zentroaren lurzorua bada ere, baina kasu horretan, bermeak honako berariazko baldintza hauek bete beharko ditu:

Deskontaminatzeko erabakia

Kostu horiek bermatuta geratuko dira baldin eta deskontaminazioa arrazoi hauetakoren batengatik egin behar bada:

a) Eskumena duen agintaritzak aseguratuari eskatzen badio, administrazio ebazpen baten bidez, edo

b) Aseguratuaren jabetzakoa ez den lurzoru bat deskontaminatzea beharrezkoa baldin bada, polizak babestutako ezbehar bat gertatzearen ondorioz, baldin eta deskontaminazio hori ezin bada egin aseguratutako zentroko lurzorua ere deskontaminatu gabe.

Ez da inolako indemnizaziorik edo konpentsaziorik ziurtatuko, aseguratutako kutsadura gertatu aurreko lurzoruaren baldintzen eta deskontaminazio jarduketekin lortutakoen arteko aldeagatik, ez eta kutsadura gertatu zenean zeukan erabilera ez den beste batera bideratzeko asmoa izan, eta horren ondorioz lurzoruaren erabilgarritasun itxaropenak galtzeagatik ere.

Mugak

1.- **Estalduraren ehunekoa**

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 31

Aseguratutako zentroaren lurzorua deskontaminatzeko gastuak kontratuan zehaztutako gehieneko zenbatekoraino estaltzen dira. Aseguratzailea zenbateko hori ordaintzera behartuta egongo da, frankizia kendu eta, gehienez ere, aseguratutako zenbatekoa agortu arte.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 31

2.- Estalduraren beste muga batzuk

Aseguru honek ez ditu estaliko aseguratutako zentroko zoladurak garbitzeko gastuak edo lurzoruaren gainazala deskontaminatzeko beste gastu batzuk, baldin eta, gorago deskribatutako a) eta b) kasuetan jaso gabe badaude ere, aseguratutako jarduera ezbeharra gertatu aurreko baldintza berdinetan egiten jarraitzeko beharrezkoak badira.

Estalduraren hedadura.- Aseguratutako zentroko lurzoruaren kutsadura, hirugarren batek eragindakoa

Klausula honetan definitutako bermea eta prestazioak muga eta baldintza berberekin ematen dira, baita kutsadura hirugarren batek eragin badu ere; hala ere, kasu horretan, aseguratzaileak kontratuan aurreikusitako subrogazio ekintzak gauzatu ahal izango ditu.

5.- ASEGURATUAK INGURUMEN ERANTZUKIZUNAREN KOSTUAK ORDAINTZEKO LEGEZKO BETEBEHARRA EZ DUEN KASUETARAKO ESTALDURAK

Aseguratzaileak ordainduko ditu aseguratuak behin-behinean jasan behar dituen prebentzio, saiheste eta konponketa kostuak, baita legeak kostu horiek ordaintzetik salbuesten duenean ere, baldin eta kaltea edo ingurumen kaltearen mehatxua honako arrazoi hauetakoren batengatik gertatu bada:

- Erakundekoa ez den hirugarren baten jarduna.
- Agintaritza baten agindu edo instrukzio bat betetzea.
- Administrazioak egindako proiektu baten akatsak.
- Kaltea eragin duen emisioa edo gertaera baimenduta egotea.
- Jarduera edo emisioa potentzialki kaltegarritzat ez hartzea, gauzatzen den unean ezagutza zientifikoek duten egoeraren arabera.

Kasu horietan, estaldura kontratuaren baldintzen menpe egongo da oso-osorik, ezbehar bakoitzari aplikagarri zaizkion neurrian, gertaeren izaeraren eta kalteen ezaugarrien arabera.

Aseguratzaileak, ezbeharren ardura bere gain hartzean, aseguratuaren kobrantza eskubideak eta kontratuan zein legean aurreikusitako subrogazio ekintzak baliatu ahal izango ditu.

6.- ASEGURATUTAKO ETA ASEGURATU GABEKO KALTEAK PILATZEA

Konponketa egiteko edo indemnizazioa emateko edo beste kostu batzuk izateko betebeharra estaltzen diren kalteen ondorioa bada, eta beste batzuk ez, sortzen diren gastuak eta indemnizazioak batzuek eta besteek mehatxuaren edo kaltearen emaitzan lagundu duten ehuneko berean esleituko dira, eskatu beharreko aditu irizpenaren arabera; eta ehuneko hori aseguratzailearen eta aseguratuaren bizkar geratuko da, hurrenez hurren.

7.- EZBEHAR BEREAN ASEGURUAK PILATZEA

Ezbehar baten ondorioak aseguru batek baino gehiagok estaltzen badituzte, oro

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 31

har, aseguru horrek dagozkion prestazioen kostua ordaintzen lagunduko du, gainerakoekin batera, bakoitzak aseguratutako zenbatekoaren ehunekoan, eta ezin izango da gainditu, guztira, aseguratutako

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 31

erantzukizunen eta gastuen zenbatekoa, frankizia kenduta, edo aseguratuaren konturako frankizien batura.

Arau honen salbuespenak dira hauek: erantzukizun zibil orokorraren gainean egon daitezkeen aseguruak, ibilgailuen zirkulazioko erantzukizun zibilaren aseguruak (nahitaezkoak edo borondatezkoak) eta suteen eta bestelako ondare kalteen aseguruak.

Aseguru horien bermeek jardungo dute lehenik eta behin, eta betiere, horietako edozeinekin lotuta. Aseguru horrek aseguruek estaltzen ez dituzten alderdiak estaltzeko baino ez du jardungo, eta inola ere ez, aseguratutako zenbatekoak osatzeko, ez aldi berean, ez eta gehiegietan ere, nahikoak ez badira.

8.- ESTALDURAREN DENBORA MUGAKETA

Estaldura denbora mugatzeko eta aseguratutako zenbatekoa aseguruaren urterokotasunaren arabera zenbatzeko, ezbeharraren datatzat hartuko da ingurumen kaltearen lehen adierazpen egiaztagarria. Lehen adierazpena izango da kalte horren berri lehen aldiz ematen den unea, bai adierazgarritzat jotzen bada, bai horrela ez bada.

Beraz, urtero berritzen diren aseguruetan, ezbehar bakoitza data hori barne hartzen duen aseguru urteari esleituko zaio soilik, baita bere garapen prozesua edo ondorioak hainbat urtean luzatzen badira ere.

Ezbehar batek erreklamazio bat baino gehiago eragiten baditu, ezbeharraren datatzat hartuko da lehenengo erreklamazioa eragin zuen ingurumen kaltearen lehen adierazpen egiaztagarria.

Ezbehar bat aseguruaren aldiaren barruan geratzeko, hiru baldintza bete behar dira:

1. Estalduraren xede den ingurumen kaltea eragin duen gertaeraren edo ingurumen kaltearen berehalako mehatxuaren hasiera identifikatzea, eta asegurua indarrean jarri ondoren gertatu dela frogatzea. Hasiera une hori zehaztu edo mugatu ezin bada, baldintza hau bete egiten dela ulertuko da. Aseguratuak hori zehazteko beharrezkoa den lankidetza guztia emango du, eta, bestela, presuntzio hori alderantzikatu egingo da.

2. Estalduraren xede den ingurumen kaltearen lehen adierazpen egiaztagarria aseguruaren aldiaren barruan gertatu izana.

3. Erreklamazioa aseguru aldiaren barruan edo asegurua iraungitzen denetik hiru urteko epean egitea.

9.- ESTALDURAREN LURRALDE ETA JURISDIKZIO MUGAKETA

Kontratuaren estaldurak Epeleko zabortegian jatorria duten kalteen erreklamazioak babestuko ditu, baldin eta kalte horiek judizioz kanpo edo Europar Batasuneko estatu kideetako auzitegietan konpontzen badira, eta estatu kide horien lurraldean indarrean dauden legezko xedapenen arabera ezarritako erantzukizunak edo bestelako betebeharrak badira.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 31

Horrenbestez, aseguratzaileak ez ditu bere bizkar hartuko honako erantzukizun hauek:

- Aseguratutako jarduera garatzen den tokietatik kanpo sortutako kalteen ondoriozkoa bada, edo

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 31

- Legeen arabera eskatzen bada, edo Europar Batasunekoak ez diren estatuetako auzitegiek eskatzen badute. Bereziki, kanpoan uzten dira Estatu Batuetako edo Kanadako auzitegiek edo han indarrean dauden legeen arabera deklaratzen dituzten erantzukizunak, nahiz eta Europar Batasuneko epai auzitegiek erabaki judizial horiek aitortu.

10.- INDEMNIZATU BEHARREKO DIRU SAILEN LEHENTASUNA

Oro har, Aseguru Kontratuaren Legean ezarritakoarekin bat etorriz, aseguratutako zenbatekoa agortu arte likidatuko dira, gehienez ere, zehaztu diren prestazioen ordainketak, ezbehar bati edo gehiagori dagozkienak, indemnizazioetarako diru sail guztiak ezarri eta kuantifikatu arte itxaron behar izan gabe.

Aseguratutako zenbateko hori une jakin batean likidatu gabe dauden ezbeharraren edo bermatutako ezbeharren diru sail guztiak estaltzeko nahikoa ez bada, ordainketak hurrenkera honen arabera egingo dira:

1. Ingurumen kaltearen berehalako mehatxua prebenitzeko kostuak.
2. Ingurumen kalteak leheneratzeko kostuak, Eskumena duen Agintaritzak kasu bakoitzean onartzen duen jardueren hurrenkeraren arabera.

Prestazio osagarriak indemnizatu egingo dira, berariazko prestazioak ezagutzen den irismenera arte ordaindu direnean, eta horien artean, hurrenkera honetan:

1. Aseguratuaren defentsa gastuak.
2. Estalduraren xede den ingurumen kaltearen berehalako mehatxua prebenitzeko kostuak.
3. Kalte berriak gutxitzeko eta saihesteko kostuak.

Aseguratzaileak lehentasun ordena hori errespetatu beharko du, ezbeharraren ondorioak ezagunak, zehaztuak eta ekonomikoki kuantifikatuak diren heinean, indemnizazioa jaso dezaketen kostuen eta kalteen diru sail bakoitzari aurre egiteko konpromisoa hartzen duenean, salbu eta hori aldatzea gomendatzen duten premiazko edo eraginkortasuneko arrazoiak daudenean.

11.- SALBUESPENAK

Aseguru honetatik kanpo geratuko dira honako hauekin lotutako prestazio edo gastuen estaldurak, edo honako hauen ondoriozkoak :

1. Aseguratuak nahita izandako edozein portaera okerrek eragindako edo larriagotutako kalteak. Adierazpen gisa, baina ez modu mugatzailean:
   a. Aseguratuak ezagutzen dituen doluzko egite edo ez-egiteak edo aseguratutako jarduerari aplikatu beharreko nahitaezko araudia ez betetzea, bai ingurumenaren arloan, bai beste edozein arlotan.
   b. Instalazioen edo mekanismoen edo haien osagaien erabilera txarra edo horien guztien mantentze lanen, konponketen edo birjarpenen gabezia edo akatsa.
   c. Aseguratutako jardueran aukeratutako eragiketa metodoak edo horiek egiteko erabiltzen diren instalazio edo ekipoetan dauden akats

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 19. orrialdea, guztira 31

ezagunak, baldin eta kalteak saihestezinak edo oso aurreikusgarriak badira.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 20. orrialdea, guztira 31

d. Instalazioak luzaroan erabiltzeari uztea edo ez erabiltzea, hango babes edo segurtasun baldintzak ez hondatzeko neurri egokiak hartu gabe.
e. Kalteak sortzea edo larriagotzea prebenitzeko edo saihesteko eskura dituen baliabide guztiak jartzeko betebeharra ez betetzea, kalteak eragin ditzakeen gertaera bat jazo dela jakin ondoren.

Aurreko salbuespenak aplikatuko dira deskribatutako jokabideak aseguratutako zentroko jabe, artezkaritza organo edo kideei edo zuzendaritzako kideei egozteko modukoak direnean.

2. Aseguratutako jarduera bertan behera utzita edo jarduera mugarik gabe etenda egonda sortzen diren kalteak.

3. Erantzukizunak hartzeko akordioen ondorioz bere gain onartutako edo larriagotutako betebeharrak.

4. Isunak, zehapenak, tasak eta kanonak edo zergak, eta horiek ez ordaintzearen ondorioak, bai eta zigortze edo eredu izaerako ordainketak ere, nahiz eta kalte bat eragitearekin zuzenean lotuta egon.

5. Era guztietako ondasun higigarri eta higiezinei eragindako kalte-galerak, aseguratuak gaur egun edo iraganean okupatzen, erabiltzen edo manipulatzen zituenak, edo orain okupatu, zaindu eta kontrolatzen dituenak. Salbuespen hori ezin zaio aplikatu aseguratutako zentroaren lurzoruaren deskontaminazio kostuen estaldurari.

Era berean, aseguratuaren ondasun horiek ixteak, ez erabiltzeak, ordezkatzeak, konpontzeak, garbitzeak edo jatorrizko egoerara berrezartzeak eragindako gastuak ere kanpoan geratuko dira, nahiz eta haien akatsa edo eraginkortasunik eza kalte baten kausa izan, eta gastu horien helburua kalte bat saihestea izan. Kanpo uzten dira, halaber, akats edo eraginkortasun falta hori ikertzearekin edo elementu berriak zuzentzearekin, hobetzearekin edo gehitzearekin lotutako gastuak.

6. Aseguratutako jarduera garatzen duten kanpoko zentroetako lurzorua deskontaminatzeko gastuak.

7. Honako hauek eragindako kalte-galerak:

a. Gerra zibila edo nazioartekoa, tartean adierazpen ofizialik egon edo ez; herri altxamenduak nahiz altxamendu militarrak, matxinada, iraultza eta orotariko operazio belikoak, nahiz eta bake garaia izan.
b. Ekintza politiko-sozialak edo bat-batekoak, honako hauen ondoriozkoak: herri istiluak, matxinadak, grebak, barne istiluak, sabotajeak eta talde armatuen terrorismo ekintzak.
c. Lurreko dardarak, lurrikarak, sumendien erupzioak, urakanak, uholdeak edo izaera bereziko beste edozein gertaera natural.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 21. orrialdea, guztira 31

8. Instalazio nuklearrek edo elementu erradioaktiboek eragindako galera eta kalteak, bai eta erradiazio ionizatzaileak sortzen dituzten materialek edo ekipoek eragindakoak ere.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 22. orrialdea, guztira 31

9. Automobilen Nahitaezko Aseguruetan sartzen diren prestazioak, egiazki kontratatuak izan direnak, zein ez.

10. Ezbeharraren dataren ondoren indarrean sartzen diren arau edo legeek ezarritako betebeharren kostuak.

11. Birus, bakterio, onddo edo esporek eragindako kalteak.

B) KUTSADURAGATIKO ERANTZUKIZUN ZIBILA

Aseguruaren izaera osagarria

Aseguru hau kontratatzea ingurumen erantzukizunezko asegurua kontratatzearen osagarria da. Horrenbestez, ezinezkoa da modu independentean kontratatzea. Aseguru hau arautzen duten baldintzak ere beste aseguruaren baldintzen osagarriak dira. Beraz, aseguru nagusiaren klausula eta definizio guztiak indarrean daude aplikagarriak diren kontzeptu edo gai guztietan.

Aseguratutako zenbatekoaren eta ezbeharragatiko frankiziaren arteko lotura

Aseguru honek aseguratutako zenbateko guztia eta ezbehar bakoitzagatik aplikagarria den frankizia, ordea, ez dira aseguru nagusiaren zenbatekoarekiko independenteak. Ondorioz, gertaera bakar batek bi aseguruetan ezbeharrak eragiten baditu, aseguratzaileak batak eta besteak zor dituzten indemnizazioak ordaindu beharko ditu, bereiz eta horietako bakoitzean ezarritako mugara edo mugetara arte, eta aseguratuak bere gain hartu beharko ditu, modu independentean honek ere, aseguru bakoitzean ezbeharragatik ezarritako frankizien zenbatekoak.

Bi aseguruengatiko indemnizazio kostuen bikoiztasunik eza

Saihestu egingo da bi aseguruak batera gertatzeak gastu eta indemnizazio jakin batzuen bikoizketa ekartzea; beraz, gastuak aseguru bati edo besteari edo biei egotzi beharko zaizkie, horien izaera eta ehunekoak adierazten duen neurrian.

1.- BERARIAZKO DEFINIZIOAK

Hirugarrena: Honako hauek ez diren beste edozein pertsona fisiko edo juridiko:

- Aseguru-hartzailea eta aseguratua, bai aseguratu nagusia, bai "aseguratutako beste pertsona batzuk" ataleko a) letrakoak.
- Aseguru-hartzailearen eta aseguratu nagusiaren ezkontidea, arbasoak eta ondorengoak.

"Aseguratutako beste pertsona batzuk" ataleko b) atalean jasotako pertsona naturalak hirugarrentzat hartzen dira.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 23. orrialdea, guztira 31

Mankomunitatea osatzen duten udalak ere hirugarrentzat hartuko dira.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 24. orrialdea, guztira 31

Aseguratutako kopurua

Aseguru honetarako, aseguratutako kopuru gehigarri bat ezartzen da, osatzen duen ingurumen erantzukizuneko aseguruaren zenbateko aseguratuarekiko independentea.

Ingurumen erantzukizuneko aseguruari dagokion kostu bat ordaintzean aldi berean kutsaduragatiko erantzukizun zibilari dagokion kalte bat ordaintzen ari bada, kostu hori bi aseguruei esleituko zaie, aseguratutako zenbatekoen proportzio zuzenean.

Kutsadura

Aseguru honen ondorioetarako, kutsaduratzat hartuko da lurzoruan, uretan edo airean materia edo substantziak sartzea edo sakabanatzea, eta ingurune horien kalitatean narriadura arriskutsu edo kaltegarria eragitea.

Ez dira kutsaduratzat hartuko definizioan sartzen ez diren beste gertakari, ondorio edo egoera batzuk, hala nola:

- Sua, leherketa edo tenperaturaren edo presioaren beste gorakada bortitz bat. Hala ere, gertaera horien ondorioz materia edo substantziak sartzea edo barreiatzea barne hartzen da, baldin eta gertakariarekin bat badator.
- Uhinen edo erradiazioen bidez transmititzen diren zaratak, eremu elektromagnetikoak edo beste edozein energia adierazpen.
- Usainak.
- Lurpeko edo azaleko ur korronte edo masen maila, emaria edo ibilgua aldatzea.

Aseguratutako kutsadura

Zuzenean aseguratutako jarduerari egotz dakiokeen kutsadura da, ustekabean eta ausaz gertatzen dena; hau da, ezohikoa eta nahita sortu ez dena, ez eta aseguratutako jardueraren zerbitzura dauden instalazioen edo ekipoen jabetzaren edo aurreikusitako eta adostutako gertaera baten ondorio normal gisa ere.

2.- ASEGURUAREN XEDEA

Kontratuan ezarritako mugen barruan, ezbeharren bat gertatuz gero, aseguratzaileak aseguratua estaliko du erantzukizun zibilaren aurrean, aseguratutako kutsaduragatik hirugarrenei kalte edo galera indemnizagarriak eragin dizkielako.

a) Kalte eta galera indemnizagarriak:

   a. Gorputz kalteak: heriotza, gorputzeko lesioa edo pertsonen osotasun fisikoari edo osasunari eragindako beste edozein kalte.

   b. Aseguruak babestutako gorputz kalte baten zuzeneko eta berehalako ondorio diren kalte moralak.

   c. Kalte materialak: pertsona jakin batzuenak diren gauzak edo

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 25. orrialdea, guztira 31

animaliak suntsitzea, hondatzea edo galtzea.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 26. orrialdea, guztira 31

d. Galerak:
   i. Galera ekonomikoak, baldin eta galerak izan dituen erreklamatzaileak jasan dituen gorputz kalte edo kalte materialen ondorio zuzenak badira.
   ii. Jardueraren kostua geldiaraztearen edo handitzearen ondoriozko galera ekonomikoak, baldin eta estalduraren xede den ingurumen erantzukizuna betetzeko egin beharreko ekintzen ondorio badira.

b) Prestazioak:

a. Indemnizazioa jaso dezaketen kalte-galerak konpontzea edo konpentsatzea.

b. Defentsa gastuak. Aseguru honek aseguratutako erantzukizunagatiko erreklamazioen aurka aseguratuaren defentsara hedatzen da aseguratuak osatzen duen ingurumen erantzukizuneko asegurua.

c. Fidantzak ematea. Aseguru honek aseguratutako erantzukizunagatiko erreklamazioen aurka aseguratuaren defentsara hedatzen da aseguratuak osatzen duen ingurumen erantzukizuneko asegurua.

d. Gainerako gastu justifikatuak. Aseguru honek aseguratutako erantzukizunagatiko erreklamazioen aurka aseguratuaren defentsara hedatzen da aseguratuak osatzen duen ingurumen erantzukizuneko asegurua.

3.- **LAN ISTRIPUETARAKO BERARIAZKO ESTALDURA BALDINTZAK**

Aseguratutako kutsadurak eragindako lan istripuengatik aseguratuari eskatzen zaion erantzukizun zibilari aplikatuko zaizkio baldintza horiek, baldin eta aseguratuak osatzen duen ingurumen erantzukizuneko aseguruaren barneko “aseguratutako beste pertsona batzuen” b) letran jasotako pertsona naturalek pairatzen badituzte istripu horiek.

a. **Aseguratutako kutsadura**

Klausula honek estalitako istripuei dagokienez, kutsadurak aseguratutako kutsadura izaera izan dezan, baldintza agiri honen B.1 klausulan zehaztutako baldintzez gain, baldintza hauek ere bete beharko dira:

- Kutsadura eragiten duen emisioa noiz hasi den frogatzea, eta
- Emisio hori hasi denetik emisio horrek eragindako kutsadura egon badagoela egiaztatu arte 120 ordu baino gehiago igaro ez izana.

Inola ere ez dira estaliko aseguratutako jardueraren ondorioz langileak agente kaltegarriren baten eraginpean luzaroan egoteagatik sortutako lanbide

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 27. orrialdea, guztira 31

gaixotasun edo lesioengatiko edo bestelakoengatiko erantzukizunak, legezko izaera edozein dela ere.

b. **Langile bakoitzeko indemnizazioaren muga**

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 28. orrialdea, guztira 31

Ezbehar bakoitzeko eta aseguru aldi bakoitzeko aseguratutako zenbatekoa alde batera utzita, ezbehar batek edo langile batek eragindako gorputz kalteen gehieneko zenbateko bat ezartzen da.

Horren ondorioz, langile bakoitzarentzat ezarritako muga erabili ahal izango da kaltetuak izan diren langile guztietan, indemnizagarriak diren gainerako kalte-galerekin batera, aseguruaren ezbehar eta urterokoaren muga edo kontsumitu ez den muga horren soberakina agortzeko.

4.- INDEMNIZATU BEHARREKO DIRU SAILEN LEHENTASUNA

Hauxe izango da indemnizatu beharreko diru sailen ordena:

1. Gorputz kalteak eta kalte moralak.
2. Kalte materialak.
3. Galera indemnizagarriak.

5.- KUTSADURAGATIKO ERANTZUKIZUN ZIBILAREN ESTALDURAREN BERARIAZKO SALBUESPENAK

Ingurumen erantzukizuneko aseguruaren salbuespenez gain, honako berariazko salbuespen hauek aplikatuko dira:

- Asbesto partikulak edo silize partikulak arnasteak eragindako kalteak eta galerak.

- Kutsaduragatiko lan istripuen erantzukizun zibilaren estaldurari aplika dakizkiokeen salbuespenak:

    - Aseguratuarentzat honako hauek eragindako diruzko ondorioak: lan istripuen nahitaezko asegurua ez izateak, aseguru osatugabea kontratatzeak, soldaten edo kuoten ordainketetan edo ezbehar aitorpenen aurkezpenean izandako atzerapenak, eta, oro har, lan istripuen nahitaezko asegurua kontratatzearekin lotutako legezko betebeharren edozein arau hauste.

    - Gizarte Segurantzaren araudian ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik aseguratuari eska dakiokeen edozein zehapen edo erantzukizun. Ez-betetze hori aseguratuari egotz dakioke, edo aseguratuak zuzenean, solidarioki edo subsidiarioki erantzuten dien pertsonei egotz dakieke.

    - Gizarte legeriaren arau hausteengatik Gizarte Segurantzaren prestazioetan ezarritako edozein errekargu edo gehikuntza.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 29. orrialdea, guztira 31

- Hitzarmen sektorialek edo partikularrek lan istripuen edo lanbide gaixotasunen kasuetarako ezarritako betebeharretatik eratorritako indemnizazioak, errekarguak edo borondatezko hobekuntzak.

- Lanbide gaixotasunagatiko indemnizazioak eta asistentzia gastuak.

- Enpresaburuak kontratuko betebehar orokorrak ez betetzeagatik jarritako erreklamazioak, baldin eta horien ondorioz gorputz kalterik sortzen ez bada.

- Poliza honek aseguratutzat jotzen ez dituen kontratisten eta azpikontratisten erantzukizunak.

C) BI ERANTZUKIZUNEI BURUZKO KLAUSULAK

1.- ASEGURATUTAKO ZENBATEKOAREN ETA PRIMEN BALIOA HANDITZEA

Kontratua luzatzen bada, ez da aplikatuko aseguratutako zenbatekoaren eta primaren balio handitzerik.

7.- INDEMNIZAZIOAREN MUGAK ETA AZPIMUGAK

Ondoren jasotzen diren indemnizazio mugak eta azpimugak **gutxienekoak** dira, eta lizitatzaileek beren proposamenetan jasotzen dituzten gehikuntzak baloratuko dira, Administrazio Klausula Berezien Pleguan xedatutakoaren arabera.

Mugak:

- Ezbeharragatiko indemnizazio muga: 2.000.000 €.
- Indemnizazio muga, urteko: 2.000.000 €.
- Muga, biktimako: 150.000 €.

Azpimugak:

- Kutsaduragatiko Erantzukizun Zibila: 1.000.000 €, ezbeharreko eta urteko.
- Ingurumen Erantzukizuna: 1.000.000 €, ezbeharreko eta urteko.
- Lurzoruaren deskontaminazioa: 50.000 €, ezbeharreko eta urteko.
- Aseguratuaren defentsa gastuak: 10.000 €, ezbeharreko eta urteko.

8.- FRANKIZIAK

Ezbehar bakoitzeko 2.000 €-ko **gehieneko frankizia orokor** bat ezartzen da, eta baloratu egiten dira lizitatzaileek beren proposamenetan jasotzen dituzten frankizia murrizketak, Administrazio Klausula Berezien Pleguan xedatutakoaren arabera.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 30. orrialdea, guztira 31

Halaber, **gehieneko berariazko frankizia** bat ezartzen da aseguratutako zentroaren lurzorua deskontaminatzeko gastuetarako: gastu horien kostuaren %10ekoa. Hala, lizitatzaileek beren proposamenetan jasotzen dituzten frankizia murrizketak balioesten dira.

Baliozkotze Kod.: AAH9RFLRMYAP5AWPKSDKSHM6L
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 31. orrialdea, guztira 31